



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: TRONPA

2024-3-18

Nori zuzenduak?

Graduko Tronpa interpretazio ikasketak Musikenen egiteko interesa duten musika ikasleei zuzendua.

Sarrera probak 2024-2025 edo 2025-2026 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2024ko martxoaren 11an** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Tronpa interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila eta ikasketa horietara sartzeko erreperitorio egokia

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

EPELDE, Rodolfo

Óscar Sala eta Estefanía Beceiro irakasleek ere parte hartuko dute

9:30-10:30 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene** eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

10:30-12:00 Beroketa eta Teknika eskola kolektiboa izena eman duten ikasleentzat Musikeneko Tronpa ikasleekin batera, Rodolfo Epelde irakaslearekin

12:00-14:00 Ósar Salak Orkestra Erreperitorio eskolak emango ditu Musikeneko tronpa ikasleei

12:00-14:00 Estefanía Beceirok Tronpa Natural eskolak emango ditu Musikeneko ikasleentzat

14:00-15:30 Bazkaria

15:30-17:30 Rodolfo Epeldek banakako eskolak emango dizkie izena eman duten ikasle aktiboek, lehentasuna izango dutelarik Sarrera probak **2024-25** ikasturtean egingo dituztenek

17:30-20:00 Rodolfo Epeldek banakako eskolak emango dizkie Musikeneko tronpa ikasleei.

Tronpa jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan Urko Arozena Haize eta Perkusio Departamentuko buruarekin:
dpto.vientopercusion@musikene.net